

METODOLOGIA, GEHIENEO INTERES-TASA HAU KALKULATZEKO: EHORZKETAREN ONDORIOZKO GASTU ETA ZERBITZUENGATIK PRESTAZIOAK EMATEN DITUZTEN ETA ASEGURUJARDUERARIK EGITEN EZ DUTEN ARAUBIDE BEREZIKO BORONDATEZKO GIZARTEAURREIKUSPENENKO ERAKUNDEEK HORNIDUREN KALKULUAN ERABILI BEHARREKOA. **(2022erako gehieneko interes-tasa berria barne)**

Gehieneko interes-tasa kalkulatzeko metodologia, 2015-2019 aldia:

Erreferentziako gehieneko interes-tasa hau hartu zen kontuan hornidura kalkulatzeko: 2015ean indarrean zegoena aseguru-jarduerak egiten dituzten hileta-BGAEentzat (**% 1,91**).

2016. urteko interes-tasa zehazteko, lehenik, erreferentziako gehieneko interes-tasa hau hartu zen kontuan: 2016ko ekitaldirako indarrean zegoena aseguru-jarduerak egiten zituzten hileta-BGAEentzat (% 1,39). Ondoren, bi interes-tasa horien arteko aldea zati hogei egin zen, bi interes tasak elkarganatzeko 20 urteko epea kontuan hartuta. Eragiketa hau egin zen gero: zatidura

bider doikuntza aplikatzeko urte kopurua; kasu honetan, bi urte. Honela: **0,052**=  $((1,91-1,39)/20)*2$ . Jarraian, hasierako erreferentziako interes-tasari, 2015 urtekoari, kopuru hori kentzen zitzaion, 2016an aplikatu beharreko gehieneko interes-tasa zehazteko, alegia, **% 1,858** (1,91-0,052).

Berdin jokatu zen hurrengo urteetan, hasierako erreferentziako interes-tasa finko mantenduta kalkuluetan (% 1,91).

Hala, 2017. urteko interes-tasa zehazteko, lehenik, erreferentziako gehieneko interes-tasa hau hartu zen kontuan: 2017ko ekitaldirako indarrean zegoena aseguru-jarduerak egiten zituzten hileta-BGAEentzat (% 1,09). Ondoren, hasierako erreferentziako interes-tasaren (% 1,91) eta aipatu tasaren (% 1,09) arteko aldea zati hogei egin zen, elkarganatzeko 20 urteko epea kontuan hartuta. Eragiketa hau egin zen gero: zatidura bider doikuntza aplikatzeko urte kopurua; kasu honetan, hiru urte. Honela: **0,123**=  $((1,91-1,09)/20)*3$ . Jarraian, hasierako erreferentziako interes-tasari, 2015 urtekoari, kopuru hori kentzen zitzaion, 2017an aplikatu beharreko gehieneko interes-tasa zehazteko, alegia, **% 1,787** (1,91-0,123).

Berdin jokatu zen 2018 eta 2019 urteetan; ekitaldian, doikuntzaren ondoriozko gehieneko interes-tasak % 1,724 eta % 1,6775 izan ziren hurrenez hurren, doikuntza aplikatzeko lau eta bost urte kontuan hartuta hurrenez hurren.

Ondorioz, hornidura kalkulatzeko gehieneko interes-tasa aplikagarria, **2019ko ekitaldian, %1,6775 izango da.**

**Gehieneko interes-tasa kalkulatzeko metodologia, 2020-2033 aldia:**

2020ko ekitaldian indarrean jarriko da Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Agindua, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen duena. Aipatu Aginduak 8.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, ehorzketaren ondorioz sortutako gastuei eta zerbitzuei dagozkien prestazioak ematen dituzten entitateek hornidura bat egin beharko dute, ehorzketetatik eratorritako etorkizuneko ordainketen balio eguneratu aktuarialaren eta bazkideek etorkizunean ordainduko dituzten kuoten balio eguneratu aktuarialaren arteko aldea adinakoa.

Halaber, xedatzen du entitateek **hamalau urteko epea** izango dutela 2020ko urtarrilaren 1etik hasita, aipatu 8. artikuluan xedatzen denera egokitzeko.

Hala, aipatu Aginduan xedatzen den epea aplikatuta, **2020. urteko** interes-tasa zehazteko, lehenik, erreferentziako gehieneko interes-tasa hau hartu behar da kontuan: 2020ko ekitaldirako indarrean dagoena aseguru-jarduerak egiten dituzten hileta-BGAEentzat (% 0,59).

Ondoren, erreferentziako hasierako interes-tasa finkatuaren (% 1,91) eta aipatu tasaren (% 0,59) arteko aldea zati hemeretzi egin behar da, bi interes-tasak elkarganatzeko dagoeneko iragan diren bost urteei hamalau urteko epea gehituta. Eragiketa hau egin behar da gero: zatidura bider doikuntza aplikatzeko urte kopurua; kasu honetan, 6 urte.(seigarren urtea).

Honela:  $0,417 = ((1,91 - 0,59) / 19) * 6$ . Jarraian, hasierako erreferentziako interes-tasari, 2015 urtekoari, kopuru hori kentzen zitzaion, 2020an horniduren kalkuluan aplikatu beharreko gehieneko interes-tasa zehazteko, alegia, % 1,4932 (1,91-0,417).

Ondorioz, hornidura kalkulatzeko gehieneko interes-tasa aplikagarria, 2020ko ekitaldian, % **1,4932** izango da.

Hurrengo ekitaldietan berdin jokatuko da.

Kalkulu-metodo horren arabera, 2021eko urtean hornidura kalkulatzeko aplika daitekeen gehieneko interes-tasa %1,4053 izango da.

**2022ko ekitaldian hornidura kalkulatzeko aplikatuko den gehieneko interes-tasa % 1,2995 izango da.**